

Izen arrunten proposamenak
munduko zenbait espezierentzat,
Ornitho.eus webgunea euskaratzeko
(eta SEOren zerrenda eguneraturako)

Motacilla tschutschensis, Callipepla californica
Haliaeetus leucocephalus, Haliaeetus pelagicus, Gavia adamsii,
Falco amurensis, Curruca cantillans, Alectoris chukar,
Thalassarche chlororhynchos, Emberiza spodocephala,
Vanellus leucurus.



EUSKAL
BATZORDE ORNITOLOGIKOA
COMITÉ ORNITOLÓGICO
DE EUSKADI

Asier Sarasua, Aitor Galarza, Azaitz Unanue, Maite Laso,
Gorka Gorospe, Gorka Belamendia, Juan Arizaga, Txema Fernandez.

Euskal Batzorde Ornitologikoa
2022ko abenduan

***Motacilla tschutschensis*: Buztanikara txukotkar**

https://eu.wikipedia.org/wiki/Motacilla_tschutschensis

Espezie siberiarra. Inguruko hizkuntza gehienek egin duten bezala (ES, CA, FR... *Lavandera de Chukotka*, *Cuareta de Txukotka*, *Bergeronnette de Béringie*), euskaraz ere egokiena eta garbiena izen zientifikotik abiatzea da eta espezie honen jatorriari erreferentzia egitea izen arrunta sortzeko orduan (izen deskriptibo bat oso zaila baita larre-buztanikararen ia berdina den espezie honentzat).

***Haliaeetus leucocephalus*: Itsas arrano buruzuri**

https://eu.wikipedia.org/wiki/Itsas_arrano_buruzuri

Espezie ezaguna da, baina ez dugu aurkitu euskarazko izen arruntik Euskaltermen eta Elhuyar hiztegietan. Generoa garbia da (*Haliaeetus*: Itsas arrano). Genero berean *itsas arrano sabelzuria* eta *itsas arrano buztanzuria* ditugun bezala, kasu honetan bere buru zuri-zuria da espezie honen bereizgarri nabarmenena. Hizkuntza gehienek ere ezaugarri deskriptibo hori hartu dute abiapuntutzat.

***Haliaeetus pelagicus*: Itsas arrano erraldoi**

https://eu.wikipedia.org/wiki/Itsas_arrano_erraldoi

Generikoa garbia da (*Haliaeetus*: Itsas arrano). Espezifikatzaileari dagokionez, izen berezi bat hartu dute oinarri zenbait hizkuntzak (*Steller's sea eagle*, EN). Gure inguruko hizkuntza gehienek, ostera, izen deskriptiboa hobetsi dute (ES, FR, PT, DE, NV) eta guk ere horixe baliatuko dugu, ahal dela pertsona-izenak saihesteko irizpidea jarraituz. Itsas arranoen artean handiena da, munduko hegaztirik handienetakoa, eta horixe da arrano honen bereizgarri handiena, bere tamaina. Hartara, *itsas arrano erraldoi* izenak egokia dirudi espezie honentzat.

***Gavia adamsii*: Aliota mokohori**

https://eu.wikipedia.org/wiki/Aliota_mokohori

Munduan dauden 5 aliota espezieen artean hauxe da moko argia daukan bakarra (gaztetan zurizka eta ondoren horia). Gaztelan izan ezik (*colimbo de Adams*), inguruko gainontzeko hizkuntzetan mokoaren kolorea hartzen dute deskribatzaile nagusi gisa hegazti hau izendatzeko orduan, gehienetan “mokohoria”: geelsnavelduiker (NL), Gelbschnabeltaucher (DE), strolaga beccogiallo (IT); yellow-billed loon (EN), Mobilha-de-bico-amarelo (PT). Izen deskriptibo argia eta bereizlea da. Euskaraz ere bide berdina jarraitzea da argigarriena eta egokiena.

***Falco amurensis*: Belatz mantxuriar**

https://eu.wikipedia.org/wiki/Belatz_mantxuriar

Belatz hau hantxe bakarrik bizi da, Mantxurian, Errusia eta Txina arteko parajeetan. Hizkuntza guztietan lurraldeari egiten diete erreferentzia (izen zientifikoa bezala, *amurensis*). “Amurtarra” baino arruntagoa eta ulergarriagoa da “mantxuriar” euskaraz eta horixe hobetsi dugu. Gainera, aurrera begira aukera gehiago irekitzen dizkigu, Mantxuria

lurralde zabalagoa delako Amur ibaia baino eta inguru hartako beste hegazti batzuk izendatzeko ere balioko digulako.

***Callipepla californica*: Galeper kaliforniar**

https://eu.wikipedia.org/wiki/Galeper_kaliforniar

Izen garbia, horrela du latinez eta horrela izendatu da inguruko hizkuntza guztietan (EN, DE, FR, ES, CA eta abar). Aurrera begira genero honentzat beste izen generiko bat bilatzea ere aztertu daiteke.

***Curruca cantillans*: Txinbo papargorritzta mediterraneo**

https://eu.wikipedia.org/wiki/Txinbo_papargorritzta

Garai bateko txinbo papargorritzta (*Sylvia cantillans*) bi espezetan banatu da. Bata iberiar penintsulan bizi dena eta bestea Mediterraneo buelta osoan (Korsika, Italia, Grezia, Balkanak, Turkia, Israel, Egipto...). Itxuraz berdin-berdinak direnez, eta jatorrizko izena ere dagoeneko ondo ezarrita dagoenez, iruditzen zaigu euren hedadura geografikoa dela 2 espezie berri hauek izendatzeko modurik egokiena: *txinbo papargorritzta iberiarra* eta *txinbo papargorritzta mediterranea*.

***Alectoris chukar*: Txukar eper**

https://eu.wikipedia.org/wiki/Turkiar_eper

Asia erdialde guztian bizi da, Turkiatik Indiaraino. Urdueraz horrela izendatzen dute eper hau, “chakhoor” (bere kantuagatik: txuk-txuk-txukar) eta Europako hizkuntza gehienetan ere “txukar eperra” da (ES, EN, FR, CA, DE, IT, PT eta abar). Jatorriz asiarra (nahiko eremu zabalekoa), baina leku askotan askatu dute ehizarako (Australia, Estatu Batuak, Kanada, Txile, Erresuma Batua...). Arazo bilakatu da. Hori dela eta, nahiko ezaguna da bere jatorrizko eremutik kanpo. Gainera *Alectoris* generoko eper gorriarekin eta greziarrarekin hibridatzen da, arazoak areagotuz. “Txukar” bakarrik ere izendatu daiteke (hizkuntza batzuetan hala da). Bestela, “Eper gorri asiarra” ere oso egokia litzateke, kontuan izanik “*Alectoris*” generoko espezie guztiak elkarrengandik oso hurbil daudela eta itxuraz oso antzekoak direla, oro har. Ez da baztertu behar “eper gorri” generiko bat sortzea eta hortik abiatuta izendatzea, aurrerago, genero honetako espezie guztiak.

***Thalassarche chlororhynchos*: Albatros sudur-hori**

https://eu.wikipedia.org/wiki/Albatros_sudur-hori

Hego Atlantikoan bizi den espeziea, oso urria. Europako hizkuntza gehien-gehienetan bere sudur (edo moko) horia erabiltzen da espezifikatzaile gisa (izen zientifikoak ere halaxe egiten du). Euskaraz ere bide bera jarraitzea izan daiteke aukerarik zuzen eta egokiena. Wikipedian halaxe agertzen zen (ez, ordea, Euskaltermen eta beste hiztegi eta datu-baseetan).

***Emberiza spodocephala*: Berdantza maskaradun**

https://eu.wikipedia.org/wiki/Berdantza_maskaradun

Asier ekialdeko hegaztia (Siberia, Txina, Japonia...), taigan kumatzen da. Arrak maskara ilun nabarmena dauka aurpegian eta Europako hizkuntza gehien-gehienetan ezaugarri horrek ematen dio izena. Euskaraz ere bide bera jarraitzea izan daiteke aukerarik zuzen eta egokiena.

***Vanellus leucurus*: Hegabera buztanzuri**

https://eu.wikipedia.org/wiki/Hegabera_buztanzuri

Ekialde hurbilean bizi den hegabera espeziea. Buztan zuria dauka eta Europako hizkuntza gehien-gehienetan ezaugarri horrek ematen dio izena (izen zientifikoak bezalaxe). Euskaraz ere bide bera jarraitzea izan daiteke aukerarik zuzen eta egokiena. Wikipedian halaxe agertzen zen (ez, ordea, Euskalermen eta beste hiztegi eta datu-baseetan).

Euskal Batzorde Ornitologikoa, 2022ko abenduan